<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araudian Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzari agindutako eginkizunak betetzea (gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. Eta 4. artikulua): ▪ Fede publikoko funtzio publikoa egitea, honako hauek barnean hartuta: ▪ Kide anitzeko organoek egiten dituzten bileretako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, deialdiak jakinaraztea, gai-zerrendako espedienteen dokumentazio osoa zaintzea, bileretara joatea eta bilkuren akta egitea, etab. ▪ Nahitaezko lege-aholkularitzaren eginkizuna betetzea, honako hauek barnean hartuta: ▪ Aurretiazko txostenak egitea hala dagozkion gaitan, eta, betiere, ordenantzak, erregelamenduak eta estatutuak onartu edo aldatzen diren kasuetan; erakundearen ondasunak eta eskubideak defendatzeko behar diren ekintzak gauzatzeko erabakiak hartzea; egintzak ofizioz berrikusteko prozedurak; administrazio-errekurtsoak ebaztea, hala dagokionean; LPZ onartzea eta aldatzea; eta abar. ▪ Ekonomia- eta finantza-kudeaketa eta aurrekontu-kudeaketa kontrolatzeko eta barne-fiskalizatzeko eginkizuna betetzea, honako hauek barnean hartuta: ▪ Kontu-hartzailetza ▪ Finantza-kontrola, kontrol iraunkorreko funtzioaren modalitateetan eta auditoria publikoa, eraginkortasun-kontrola barne, dagozkion txostenak egitea barne. ▪ Kontabilitate-funtzioa betetzea, honako hauek barnean hartuta: ▪ Finantza-kontabilitatea eta aurrekontua betearaztekoa eramatea eta garatzea ▪ Toki-erakundearen Kontu Orokorra osatzea ▪ Kontuen egoera integratuak eta kontsolotasunak osatzea ▪ Toki-erakundearen kontabilitate-eginkizunak koordinatzea ▪ Erakundearen barne antolaketan duen kokapena dela eta, bere menpe dagoen pertsonalaren gaineko burutzari dagozkion eginkizunak betetzea: <ul style="list-style-type: none"> – Langileek oporrei, baimenei, baimenei, eskubide ekonomikoen aitorpenari eta antzeko gaiei buruz egindako edozein eskaeraren berri ematea. 	



- Langileei eta gainerako sailtako teknikariei eta politikariei aholkularitza tekniko ematea, beren eskumeneko gaietan.
- Espedienteak antolatzeko edukia eta modua zehaztea, txostenak egiteko moduari buruzko jarraibideak.
- Hierarkian gorago daudenek esleitutako antzeko beste edozein zeregin egitea.

LANPOSTUAREN BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK				
Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Izaera
A1	GN	Idazkari-kontuhartzailea	-	F
Hizkuntza eskakizuna	4	Derrigortasun-data		2021-12-1
Prestakuntza espezifikoa	Graduko unibertsitate-titulua.			
Eskakizun espezifikoak				
Oharrak				
LANPOSTUA BETETZEKO MODUA				
<input checked="" type="checkbox"/>	Lehiaketa	<input type="checkbox"/>	Izendapen askea	



LANPOSTUEN SAIKAPENA	
LANPOSTUAREN IDENTIFIKAZIOA	
Izena	EUSKARA TEKNIKARIA
Lanpostuaren kodea	
Dotazioa	1
LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Debagoieneko Mankomunitatearen euskararen erabilera Normalizatzeko Plana diseinatu, garatu, jarraipena egin, hartu beharreko neurriak zehaztu ▪ Debagoiengan euskararen sustapenean eraginkortasuna hobetzeko, koordinazioaz eta proiektuak gauzatzeaz arduratu. ▪ Euskara plana bera inplementatzeko neurriak proposatu. Hizkuntza irizpideen jarraipena egin. Ez betetzeen txostenak egin eta neurri zuzentzaileak proposatu. ▪ Hizkuntzarekin berarekin lotutako zuzenketak eta hobekuntzak proposatu: idazlanak zuzendu, kontsultei erantzun, (kartelak, diptikoak, informazio orriak, sarekoak, jasotakoak, ereduak ,prentsarakoak...WEB orria...) ▪ Kontratazio administratiboetarako, kontratu motaren arabera, hizkuntza klausulak zehaztu, jarraipena egin. (Txostenen bidez) ▪ Plantilako lanpostuen derrigortasunak, hizkuntza eskakizunak zehaztu. Horiek betetzeko langileen formazioaz eta azterketen deialdiez arduratu. ▪ Langileak kontratatzerakoan Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko frogak prestatu eta azterketak zuzendu ▪ Sarrera irteeren estatistiken bidez, hizkuntza irizpideen betetze maila neurtuz joan (sortzen den eta jasotzen den dokumentazioarekin) ▪ Debagoiengan euskararen Normalizaziorako lehentasunak direnak detektatu eta proiektuak landu udalekin elkarlanean. ▪ Udalen bidez aurrera eramaten diren proiektuez arduratu (proiektua bera eta bukaeran materialen baten bidez). Koordinazioa burutu. ▪ Jaurlaritzarekin eta Foru aldundiarekin proiektu amankomunak bideratu eta lideratu. ▪ Administrazioetik kanpoko beste eragile batzuekin elkarlana bideratu eta proiektuak proposatu. (Autoeskolen elkarlana...) ▪ Hierarkian gorago daudenek esleitutako antzeko beste edozein zeregin egitea. 	



LANPOSTUAREN BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK				
Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Izaera
A2	AB	ZB	ZB	F
Hizkuntza eskakizuna	4TP	Derrigortasun-data		-
Prestakuntza espezifikoa	Graduko unibertsitate-titulua.			
Eskakizun espezifikoak				
Oharrak	%50eko lanaldia			
LANPOSTUA BETETZEKO MODUA				
<input checked="" type="checkbox"/>	Lehiaketa	<input type="checkbox"/>	Izendapen askea	



LANPOSTUEN SAIKAPENA	
LANPOSTUAREN IDENTIFIKAZIOA	
Izena	INFORMATIKA TEKNIKARIA
Lanpostuaren kodea	
Dotazioa	1
LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mankomunitateko sail desberdinetako informatika, telekomunikazio, seguritate eta abarrez arduratu ▪ Mankomunitateko langile eta lehendakari eta lehendakariordeari, dauzkaten arazo desberdinak momentuan konpontzea edo konponbidean jartzeko pausoak ematea telefonoz, presentzialki edo online. ▪ Telekomunikazioez arduratu. Telekomunikazio alorrean dauden beharrak eta gabeziak identifikatu eta konponbideak proposatu, zuzenean edo kanpoko enpresekin batera. ▪ Ordenagailu eta ekipo informatikoetan dauden beharrak identifikatu, berriak erostea proposatu, hobetu, edo kenduz; instalatu, konfiguratu, sarean sartu. ▪ Multimedia instalakuntza eta aparatuak kudeatu eta gainontzeko langileek laguntza behar dutenean bideo-deiekin arazoak daudelako edo edozein arazo dutelako, lagundu. ▪ Mankomunitateko segurtasun digitalaz arduratu, antibirusaz arduratu, kudeatu, berritu eta arazoak konpondu; eta IZFErekin harremanetan egon arazo desberdinei konponbidea bilatzeko. ▪ Datu pertsonalen babeserako araudiak markatzen dituen arauak betetzeko egin beharrekoak egin, Idazkari-Kontu-hartzaileari lagundu eta gai informatikoez arduratu. ▪ Webgunea: Mankomunitateko webgunea kudeatu, eta atal teknikoaz arduratu. Domeinu eta hosting-ak erosi, berritu eta kudeatu. ▪ Izenpeko ziurtagiriak kudeatzeaz arduratu: berriak eskatzerakoan, formatu egokiena zein den aztertu eta beharrezkoa den abian jartze eta erosketa prozesua egin, berritzeak noiz egin behar diren kontutan hartu eta kudeatu; eta bajaz eman beharrekoak bajaz eman. ▪ Mankomunitateko ateetako zerrailaz eta horiek irekitzeko txartelez arduratu ▪ Zaborbilketarako erabiltzen den DORLET aplikazioa behar den ordenagailu eta tabletetan instalatu eta arazoak daudenean laguntza eskaini. ▪ IZFErekin harremanak mantendu ▪ Foru Aldundiko lizitazioak begiratu eta atxikitzea interesgarria den begiratu eta horrela bada, Idazkari kontu-hartzaileari lagundu. ▪ Hierarkian gorago daudenek esleitutako antzeko beste edozein zeregin egitea. 	



LANPOSTUAREN BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK				
Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Izaera
A2	AB	ZB	ZB	F
Hizkuntza eskakizuna	4	Derrigortasun-data		2004-05-26
Prestakuntza espezifikoa	Graduko unibertsitate-titulua.			
Eskakizun espezifikoak				
Oharrak				
LANPOSTUA BETETZEKO MODUA				
<input checked="" type="checkbox"/>	Lehiaketa	<input type="checkbox"/>	Izendapen askea	



LANPOSTUEN SAIKAPENA	
LANPOSTUAREN IDENTIFIKAZIOA	
Izena	ZERBITZU OROKORRETAKO ZERBITZU BURUA
Lanpostuaren kodea	
Dotazioa	1
LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Debagoieneko Mankomunitateak onartutako helburu ekonomikoen, emandako zerbitzuen kalitatearen, diseinuaren eta ezarpenaren jarraipena burutu, Idazkari-Kontuhartzailearen gainbegiratu pean. ▪ Mankomunitateko kalitate planaz arduratu. ▪ Mankomunitateko proiektu eta zerbitzuen koordinazioa eta kontrola burutu, Idazkari-Kontuhartzailearen jarraibideen arabera eta arloetako arduradunekin elkarlanean. ▪ Zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa eta sinergia (Zerbitzu orokorrak, ingurumena, agentzia...) behar duten proiektuetan koordinazioaz arduratu eta aholkularitza juridiko ekonomikoaz arduratu, arloetako arduradunekin elkarlanean. ▪ Giza baliabideen kudeaketaz arduratu, Idazkari-Kontuhartzailearen jarraibideen arabera eta arloetako arduradunekin elkarlanean, besteak beste, ondorengo funtzioak burutuz: <ul style="list-style-type: none"> - Helburuen betetzeen ardura. - Giza baliabideen kudeaketa (hautaketa prozesuak, formakuntza plana, ordutegiak, etab.) - Lanpostuen funtzioen aldaketarako proposamenak daudenean horiek jaso, aztertu eta bideratzea. ▪ Kontratazio publikoaren kudeaketaz arduratu, Idazkari-Kontuhartzailearen jarraibideen arabera eta arloetako arduradunekin elkarlanean, besteak beste, ondorengo funtzioak burutuz: ▪ Erosketen kudeaketa kontrolatzea ▪ Obra, zerbitzu eta horniduren baldintza teknikoen agiriak gainbegiratzea eta kontratatutako jarduerak kontrolatzea ▪ Mankomunitatearen eraikinaren mantenu eta kudeaketaz arduratu. ▪ Eskaintzen diren zerbitzuen diseinuan laguntza eskaini arloetako arduradunei, besteak beste, ondorengo funtzioetan: <ul style="list-style-type: none"> - Udalekin harremanak izan eta ematen den zerbitzuari dagokionez, erantzun ▪ Arloetan daudenetatik at, jarduera berriak abiaraztea identifikatutako beharren arabera ▪ Administrazio elektronikoaren kudeaketaren ardura hartu, Idazkari-Kontuhartzailearen gidaritzapean. ▪ Mankomunitatearen komunikazioaz arduratu (web orria, sare sozialak, etab), 	



gainontzeko arloetako arduradunekin eta informatikako teknikariarekin elkarlanean.

- Berdintasun planaren kudeaketaz arduratu.
- Kudeaketa Plana zehaztea, helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak ezarriz eta Kostuak, Kuotak, Gastu Arruntak eta Inbertsioak zehaztuz, eta horiek kostu zentroen arabera bereiziz.
- Kudeaketa Planaren berrikuspena:
- Landutako kudeaketa planaren egokitzapen proposamenak lantzea.
- Ustiapen kontua, egoeraren balantzea eta diruzaintzaren bilakaera hileroko kontrolatzea.
- Kreditu aldaketak proposatzea eta helburuak berriz finkatzea.
- Debagoieneko Mankomunitateko Idazkari kontu hartzailearekin koordinatuta, arlo ekonomiko eta finantzarioaren ardura.
- Debagoieneko Mankomunitatearen urteko Aurrekontua (Helburuak eta erabiltzekoa) prestatzeko eta planifikatzeko proposamena eta Gobernu organoek esleitzen diotena betiere idazkari kontu-hartzailearen eginkizun eta txostenak errespetatuz.
- Debagoieneko Mankomunitatearen urteko aurrekontuaren proiektua egitea eta aurrekontuaren egikaritzaren jarraipena egitea, Idazkari kontu-hartzailearen gidaritzapean.
- Diruzaintzaren kontrola egikaritu, Idazkari kontu-hartzailearen gidaritzapean.
- Kobranta eta ordainketen ardura. (ordainketen 3. sinadura, lehendakari eta idazkari kontu-hartzaileaz.)
- Hileroko diruzaintzako planarekiko desbiderapenen jarraipena.
- Kostuak kalkulatzeko, Idazkari-Kontu-hartzailearen gidaritzapean
- Kontabilitate Analitikoa ezartzea.
- Partikularrei emandako zerbitzuen kostuak zehaztea.
- Finantzaketaz arduratu, Idazkari kontu-hartzailearen gidaritzapean
- Debagoieneko Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuen fakturazioa kontrolatzea
- Tasen kobranta kontrolatzea
- Udalei kuotak eta emandako zerbitzuak kobratzea
- Kanpoko finantzaketa bilatzea: Maileguak, kreditu lerroak, dirulaguntzak.
- Diruzaintzako erpinak errentagarri egitea
- Zergen kudeaketa, Idazkari kontu-hartzailearen gidaritzapean
- Gaiaren inguruko aholkularitza fiskala: PFEZaren eta BEZ ordainketa.
- Kontabilitatearen kudeaketa, Idazkari kontu-hartzailearen gidaritzapean
- Urteko itxiera, Balantzea, Eraitzen kontua eta Memoria prestatzea betiere 128/2018ko idazkari kontu-hartzailearen ardurak errespetatuz.
- Departamentu burutzari dagozkion eginkizunak betetzea:
 - Langileek oporrei, baimenei, baimenei, eskubide ekonomikoen aitortzenari eta antzeko gaiei buruz egindako edozein eskaeraren berri



ematea.

- Langileei eta gainerako sailtako teknikariei eta politikariei aholkularitza teknikoa ematea, beren eskumeneko gaietan.
- Espedienteak antolatzeko edukia eta modua zehaztea, txostenak egiteko moduari buruzko jarraibideak.
- Hierarkian gorago daudenek esleitutako antzeko beste edozein zeregin egitea.

LANPOSTUAREN BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Mota	Izaera
A1	AO	TEK	-	F
Hizkuntza eskakizuna	4 HE	Derrigortasun-data		XXXXXX Bilkurako data
Prestakuntza espezifikoa	Graduko unibertsitate-titulua.			
Eskakizun espezifikoak				
Oharrak				

LANPOSTUA BETETZEKO MODUA

<input checked="" type="checkbox"/>	Lehiaketa	<input type="checkbox"/>	Izendapen askea
-------------------------------------	-----------	--------------------------	-----------------



2. ERANSKINA. BARNE ANTOLAKETA

Mankomunitatearen organigrama 2022ko martxoaren 23an onartutakoa da. Bertan, hiru arlotan bereizten da Mankomunitatea:

- Zerbitzu orokorrak
- Ingurumen zerbitzua
- Garapen agentzia

Hauetako arlo bakoitzak, arduradun bat dauka, eta arduradun horrek bere eskumen esparruaren barruan, bere arloaren barruan eta arloko pertsonalari dagokionez betetzen ditu arduradun funtzioak.

Hori horrela izanik ere, eta hiru arloen arteko koordinazioa areagotzeko helburuan oinarrituta, Mankomunitateak lan funtzionamenduan zenbait aldaketa txertatu nahi ditu, zeharkakotasunean sakontzeko eta barne funtzionamenduan sinergiak aprobetxatu eta eraginkortasunean eta efizientzian irabazteko.

Zalantzarik ez dago, Zerbitzu orokorretan zeharkakoak diren arloak kokatzen direla:

- Arlo juridikoari dagokionez, hemendik ematen zaio zerbitzu Mankomunitateko beste bi arloei
- Pertsonalaren kudeaketan ere, hemendik eramaten dira pertsonalaren hautaketa prozesuak, kontratazio eta izendapenak, ordainsarien kudeaketa, nominak eta aseguru sozialen kudeaketa, lan arriskuen prebentzioa, etab.
- Kontratazio publikoan ere, hemendik eramaten da kudeaketa administratibo guztia, gainontzeko arloei behar duten laguntza eskainiz.
- Euskara arloan ere, hemendik bideratzen da euskararen erabilera plana
- Informatika arloan ere, hemendik ematen zaio zerbitzu erakunde guztiari



- Arlo ekonomikoan ere, aurrekontuaren kudeaketan, fakturazioa, kontabilitatea, diruzaintza eta dirubilketa... zerbitzu horiek ere hemendik kudeatzen diren zerbitzu transbertsalak dira.

Beste bi arloak, arlo espezifikoak dira eta bakoitzak bere eskumen esparrua kudeatzen du.

Hori horrela izanik, Mankomunitateko Gobernu taldeak hiru arloen arteko koordinazioan gabeziak detektatu ditu eta zeharkakotasun horretan sakontzeko beharra antzeman du.

Mankomunitatea erakunde bat eta bakarra da, eta irizpide amankomunak erabili behar dituzte arlo desberdinek, eta hori, gaur egun, ez da beti bermatzen eta koordinazio falta ematen da hiru arloen artean.

Hori ekiditeko, prozeduren normalizazioan eta barne koordinazioan sakontzeko neurriak hartu nahi ditu Mankomunitateak, eta ondorioz, Zerbitzu orokorretako arloan beste zeharkako funtzio bat kokatu nahi izan du Gobernu taldeak: Hiru arloen arteko lanaren koordinazioa, irizpide amankomunen ezarpena eta horren jarraipena.


Eta Zerbitzu orokorretan kokatu nahi du, bere eskumen esparruarekin erabateko lotura duelako: Idazkaritza eta Kontuhartzailtza funtzioak hemen dauden heinean, erakundearen barne kudeaketa bertatik gainbegiratzeak erabateko logika dauka.

Horretarako, Idazkari-Kontuhartzaile lanpostuaren menpe egongo den Zerbitzu orokorretako zerbitzu buruari, jarraipen eta koordinazio funtzio horiek esleitu dizkio.

Lanpostu hau Zerbitzu Orokorretako goi teknikari bat da, ez dago harreman hierarkikorik gainontzeko arloetako arduradunekiko, hauek Idazkari-Kontuhartzailearen menpe dauden heinean. Ez da hori lanpostu honen funtzioa ez organigraman izango duen kokapena. Kudeaketako ardurak izango ditu, Idazkari-Kontuhartzailearen gainbegiratu-pean, hiru arloen arteko sinergiak aprobetxatu eta ezarritako helburuak lortzeko.



Hori horrela, Mankomunitateko organigrama horrela geratuko litzateke:





3. ERANSKINA. LANPOSTUEN BALORAZIO PROPOSAMENA

Lanpostuen balorazioa egiteko, aholkulari taldeak “Lanpostuak baloratzeko metodoaren eskuliburu teorikoa” erabili du. Dokumentu honek, Udaleko lanpostu bakoitzari graduak ezartzeko orientabide edo erreferentzia marku gisa erabiliko diren balorazio irizpide edo faktoreak jasotzen ditu.

Faktore bakoitzak bere azalpena du; bertan, postu bakoitzean baloratu eta aintzat hartu nahi diren ezaugarriak agertzen dira eta lanpostu batek beste lanpostuekiko duen garrantzi erlatiboa bereizteko lagungarri den graduen araberrako eskala jasotzen da.

Graduak esleitzerako orduan, honako hau izan beharko dugu kontutan:

- Lanpostuaren monografia edo funtzioen azalpena.
- Faktorea, bere azalpena eta faktore bakoitzari dagozkion graduak.
- Lanpostu bakoitzak beste lanpostuekiko duen kokapen erlatiboa, eskalako graduetan lanpostu bakoitzaren kokapena, erlatiboki homogeneoa eta trataeran ekitatiboa izan dadin.
- Orobat, emaitza bere osotasunean izan behar da kontutan. Erakundearen testuingurua kontutan izanik egin behar da balorazioa, ez postu batek faktore batean duen kokapen erlatiboa soilik, baizik eta azken emaitza globala ere izan behar da kontutan.

1.1 BALORAZIO ESKULIBURUAREN OINARRI TEORIKOAK

Eskuliburu honetan baloratzen diren faktoreak lanpostuaren funtzioak arrakastaz betetzeko beharrezkoak diren gaitasun eta ezaugarrien ondorio dira.

Giza nortasunaren egitura lau mailatan eratua dagoela uste da:

- Zentzumen – mentala, Ekimenaren eta Zailtasun Teknikoaren faktorea barne hartzen duena.
- Afektiboa, Norbere Lanaren gaineko Erantzukizuna (kudeaketa eta isilpeko datuak), Agintea (Besteen Lanaren gaineko Erantzukizuna) eta Harremanengatiko Erantzukizuna barne hartzen dituen.



– Erabakitzailea, Autonomia barne hartzen duena.

– Aktiboa, Esperientzia, Ezagutzak, Ingurune eta Arrisku Baldintzak eta Ordu-tegi Nekagarritasun faktoreak barne hartzen dituena.

Giza-portaeran eta ondorioz bere lan-jokabidean, gizakiaren nortasunaren alderdi guztiek hartzen dute parte. Gizakiaren jokabidean, eta beraz jokabide laboralean ere bai, gizakiaren nortasunaren faktore hauek guztiek eragina dute, ez modu isolatuan, baizik eta faktoreen arteko lotura estuek osatutako egituran.

Esate baterako, zeregin bat burutzerakoan, sentsu batzuk jartzen dira martxan, arreta pizten da, jarduera mentala bizkortzen da eta emozio bat eragiten da. Jario mentala eta afektiboa bateratzen dira motibazio indartsu bat sortzeko, eta motibazio hori ekintza bat burutzeko erabakiarekin amaitzen da.

1.2 BALORAZIO ESKULIBURUAREN EGITURA

Eskuliburuak, Destino Osagarriari aplikagarri zaizkion faktoreen lehen talde bat eta Berriazko Osagarriari aplikagarri zaizkion faktoreen bigarren talde bat aurkezten ditu. Horretarako, 207/1990 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen soldatei buruzkoan oinarritzen da

Honela, Destino Osagarriari aplikagarri zaizkion faktoreen artean, eta ondokoa xedatzen duen Dekretuaren 4.atalean oinarrituta, *“30 mailatan sailkatuko dira Euskal Administrazio Publikoetako lanpostuak, horretarako, lanpostuak betetzeko eskatzen diren baldintzak hartuko direla kontutan eta, bereziki, ezagupen mailak, esperientzia, iniziatiba, agintaritza eta eragozpen teknikoak edo lanpostuak dituen eginbeharrak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren eta antzeko eskakizunak. Gero ezartzen diren bitartekoak errespetatu beharko dira”*, ondorengoak izango ditugu:

DESTINO OSAGARRIARI APLIKAGARRI ZAIZKION FAKTOREAK:

1. EZAGUTZAK – ESPERIENTZIA
2. EKIMENA ETA ZAILTASUN TEKNIKOA



3. AUTONOMIA

4. BESTE BATZUEN LANAREN GAINENKO ERANTZUKIZUNA

Bestetik, Berriazko Destinoari aplikagarri zaizkion faktoreen artean, eta aipatutako Dekretuaren 6. Atalean xedatutakoan oinarrituta: *“Lanpostu bakoitzarentzako bakarria izango den osagarri bereziak (finkatuta baldin badago), lanpostu bakoitzean eman daitezkeen baldintza bereziak jasoko ditu, Administrazio Publiko bakoitzaren Zerrendetan jaso beharko dela. Honako hauek hartuko dira kontutan horretarako:*

a) *Erantzukizuna eta teknika mailako zailtasun berezia.*

Honako hauek finkatuko dute erantzukizuna eta teknika mailako zailtasun berezia: Administrazio bakoitzaren egitura organikoan lanpostuak izan dezan posizioak eta garatu behar den ihardunaren izakerak, hartzen duen eremuak eta dituen eraginek.

b) *Bateraezintasuna.*

Lanpostuaren edukina eta eremua direla medio, titularrak hari atxikita daudeneko Administrazio Publikoan bakarrik lan egin beharra dakarrenean ematen da bateraezintasuna. Ondorioz, soldata irabazten deneko beste ihardunak gauzatzea, debekatzen dela.

c) *Dedikazio berezia.*

Lanpostuaren zernolakoak direla medio, aldi berean bateraezintasuna eman; bi alditako lan-erregimena bete behar; ohizko lanorduetan edo horietatik kanpo, ohizko lanorduak gainditu ditzaten orduetatik ordu edo diru konpentsaziorik gabeko batzar, batzorde, harahonako eta abarretara joateko erabateko disponibilitatea eskatzen direnean ematen da dedikazio berezia.

d) *Lanpostuak duen iguinkortasuna edo arriskutsutasuna, lanpostuak atxikita daramatzan arrisku, iguinkortasun edo molestien zernolakoak kontutan hartuz, lanpostuan ematen diren nekekortasunz edo arriskutsutasuna, baldintza horiek iraunkortasunez eman daitezenean eta ez noizean behin.*



Halaber, jaiegun edo gau jakin batzutan lan egin beharra, nekekortasuntzat hartuko da, lehen aipatu den ohizkotasun-baldintzaren arabera.“

BERARIAZKO OSAGARRIARI APLIKAGARRI ZAIZKION FAKTOREAK

5. NORBERE LANAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA:

5.1. KUDEAKETAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNA

5.2. ISILPEKO DATUEN GAINEKO ERANTZUKIZUNA

6. HARREMANENGATIKO ERANTZUKIZUNA

7. ERAKUNDEAN ERAGINA

8. LANPOSTUAREN BALDINTZAK:

8.1. INGURUGIRO ETA ARRISKU BALDINTZAK

8.2. ORDUTEGI-NEKAGARRITASUNA

9. DEDIKAZIOA

Lehendabizi faktore bakoitza zertan datzan azaltzen da. Faktore bakoitzaren deskribapen orokorra egin ondoren graduetan banakatzen da zailtasun gorakorra duen gradiente baten arabera. Gradu bakoitzari puntuazio bat esleitzen zaio. Dagozkien gradutan banakatutako faktoreen puntuazioak adierazten dituen taula orokorra eransten da.

1.3. BALORAZIOAREN EMAITZA DIRUTAN BIHURTZEKO FORMULA

Lanpostuen balorazioaren aplikazioa errazteko helburuarekin, Lanpostuen Ordainsariak finkatzeko ondorengo konbertsio formula proposatzen du aholkulari taldeak.

Proposatutako formula, ondorengo irizpideen aldibereko aplikazioan oinarritzen da:

- Konbertsioa ulergarri egiten duen formula erreza definitzea
- Eragin negatiboa duen lanpostuak gutxienekoak izatea
- Udalaren egoera ekonomikoa arriskuan jartzen ez duen formula proposatzea.



Beraz, proposatu den lanpostuen balorazioaren konbertsio formula, ordainsari egiturari erreparatuz, lanaldi osoarekin, eta indarrean dagoen araudia errespetatuz, ondorengo da:

$$\text{Ordainsaria} = S + DO + (BO \times PP)$$

S: Soldata (Estatuko Aurrekontu Legeetan ezarritakoaren arabera)

DO: Destino Osagarria. Konbertsio formula bat proposatu da Destino Osagarrian lortu diren puntuak DO-ko mailetara bihurtzeko. Destino Osagarria Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontu Legearen arabera ezarrita.

BO: Berariazko osagarrian lortutako puntu kopurua

PP: Puntuaren prezioa: (erakundeak ezartzen duena)

Aurrekoa kontutan izanda,

-

Balorazio Manual Teknikoak jasotakoa aplikatuz, hona hemen Destino Osagarrian lortutako puntuei dagokien bihurtze taula:

PUNT. MIN	PUNT. MAX	NIVEL
	45	13
46	60	14
61	75	15
76	90	16
91	105	17
106	120	18
121	135	19
136	150	20
151	165	21
166	180	22
181	200	23
201	220	24
221	240	25



241	260	26
261	280	27
281	300	28
301	320	29
321	-	30

Berriazko osagarriari dagokionez eta puntuaren balioari dagokionez, lortutako balioa ondorengoa da: **208,521€**

Balio hau, Berriazko osagarriko dagoen diru kantitatea, balorazio prozesuan lanpostu guztien artean lortutako puntu guztien arteko zatiketa eginez lortzen da.

Balorazio prozesu honek eman dituen ondorio ekonomikoen aplikazioa, beti ere, aurrekontu legeek ezartzen dituzten mugak eta baldintzak kontutan izanik egin beharko da.

Ondoren, Lanpostuen Baloraziorako Metodoaren Eskuliburu Teknikoan jasotako metodologia aplikatuz, aholkulari taldeak lortutako emaitzaren proposamena aurkeztuko dugu, behin langileek aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren:



Puesto de trabajo	Conoc.- Exp. F.1	Inicia-Dif tca. F.2	Autonomía F.3	Mando F.4	PUN OS CD	NIVEL CD	Resp. Gest. F.5.1	Resp. Datos Confid. F.5.2	Resp. Relac. F.6	Cond. Amb. y Riesgo F.7.11	Cond. Amb. y Riesgo F.7.12	Cond. Amb. y Riesgo F.7.13	P. Horaria F.7.2	Dedic. F.8	PUN OS CE
Idazkari-kontuhartzailea	5	5	5	2	255	26	5	4	4	1	1	1	0	2	200
Zerbitzu orokorretako zerbitzu burua	5	5	5	1	240	25	4	4	4	1	1	1	0	2	185
Informatika teknikaria	3	3	3	0	135	19	3	2	2	1	1	1	0	1	115
Euskara teknikaria (½)	3	3	3	0	135	19	3	2	2	1	1	1	0	0	100

Nueva Denominación	IMPACTO ECONÓMICO										DIF
	PROPUESTA DE VALORACIÓN										
Puesto de trabajo	GRUPO	SUELDO	SUELDO (X DOT- JORNADA)	CD	CD	CD (X DOT- JORNADA)	CE	CE (X DOT- JORNADA)	TOTAL (X DOT- JORNADA)		DIF
Idazkari-kontuhartzailea	A1	16.633,90	16.633,90	26	13.739,46	13.739,46	41.704,20 €	41.704,20 €	72.077,56 €		3.750,04 €
Zerbitzu orokorretako zerbitzu burua	A1	16.633,90	16.633,90	25	11.899,58	11.899,58	38.576,39 €	38.576,39 €	67.109,87 €		624,18 €
Informatika teknikaria	A2	14.626,98	14.626,98	19	7.790,30	7.790,30	23.979,92 €	23.979,92 €	46.397,20 €		6.083,04 €
Euskara teknikaria (½)	A2	14.626,98	7.313,49	19	7.790,30	3.895,15	20.852,10 €	10.426,05 €	21.634,69 €		1.477,61 €

2022KO LANPOSTUEN ZERRENDA
A) KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

Orden zk.	Deitura	Langile kopurua	Lanpostu mota	Hornitzeko era	Ordainsari osagarriak			Dedikazioa	Saila	Postua betetzeko baldintzak					Titulazioa	Oharrak
					L-M.O.	B.O. (hilekoa)				Adskripzioa			Hizkuntz eskakizuna			
						T.O.B.O.	D.B.T.B.O.			Taldea	Eskala	Azpieskala	Koeffizientea	Derrigor. data		
Zerbitzu Orokorrak																
1	Idazkari/kontuhartzailea	1	B	L	26	2,978,87			ZO	A1	GN	IK	4	2021.12.01	Lizentziatura, ingeniari- arkitektura edo gradua	
2	Kontuhartzaitzako A.O.T	1	E	L	25	2,902,14			ZO	A1	AO	T	4	1992.06.30	Zuzenbidean, Politika, Ekonomia edo Enpresa Zientzietan, Merkataritza Intendentean edo Aktuarioan lizentziatua, y	
3	Zerbitzu Orokorrerako zerbitzu burua	1	E	L	25	2.755,46			ZO	A1	AO	T	4	2023.03.10	Lizentziatura, ingeniari- arkitektura edo gradua	
4	Idazkaritzako Administraria	2	E	L	17	1,247,55			ZO	C1	AO	AD	3	2009.01.21 2011.01.01	Batxiler-edo teknikari-titulua	
5	Kontuhartzaitzako Administraria	1	E	L	19	1,461,84			ZO	C1	AO	AD	3	2009.01.21	Batxiler-edo teknikari-titulua	
6	Informatikaria	1	E	L	18	1,712,85			ZO	A2	AB	ZB	4	2004.05.26	Gradua edo ingeniari- arkitektura teknikoaren informatika espezialitatean	
7	Euskara Teknikaria	1	E	L	18	744,72		%50	ZO	A2	AB	ZB	4 TG		Gradu-titulua, ingeniari- arkitektura teknikoaren unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoaren edo baliokidea	
8	Prebentzio Teknikaria	1	E	L	18	1,430,22			ZO	A2	AB	ZB	4	2008.01.01	Gradu-titulua, ingeniari- arkitektura teknikoaren unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoaren edo baliokidea	(1)
(1) Laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari titulazioa, laneko segurtasun espezialitatean.																
Ingurumen Zerbitzua																
9	Ingurumen Zerbitzuaren arduraduna	1	E	L	24	2,610,01	20		Ing.	A1	AB	ZB	4	2000.01.01	Ingurumen Zientzietan, Biologian, Kimikan, Geologian edo Ingurumenarekin zuzenean loturiko injenieritzan gradua, y Gidatzeko B baimena	
10	Ingurumen Zerbitzuko Ustiapen Arduraduna	1	E	L	23	2,349,48	15		Ing.	A2	AB	ZB	4	2016.01.01	Ingurumen Zientzietan, Biologian, Kimikan, Geologian edo Ingurumenarekin zuzenean loturiko injenieritzan gradua, y Gidatzeko B baimena	

Orden zk.	Deitura	Langile kopurua	Lanpostu mota	Hornitzeko era	Ordainsari osagarriak			Dedikazioa	Salia	Postua betetzeko baldintzak					Oharrak	
					L-M.O.	B.O. (hilekoa)				Adskripzioa			Hizkuntz eskakizuna			Titulazioa
						T.O.B.O.	D.B.T.B.O.			Taldea	Eskala	Azpieskala	Koeffizientea	Derrigor. data		
11	Ingurumen Teknikaria	2	E	L	20	1,484,50			Ing.	A2	AB	ZB	4	2000.01.01 2016.01.01	Ingurumen Zientzietan, Biologian, Kimikan, Geologian edo Ingurumenarekin zuzenean loturiko injenieritzan gradua, y Gidatzeko B baimena	
12	Informatzaile teknikariak	2	E	L	18	1,430,22			Ing.	A2	AB	ZB	4	2018.11.20	Ingurumen Zientzietan, Biologian, Kimikan, Geologian edo Ingurumenarekin zuzenean loturiko injenieritzan gradua, y Gidatzeko B baimena	
13	Herri-bide zerbitzuen arduraduna	1	E	L	18	1,553,92	10		Ing.	C1	AB	ZB	3	2005.01.01	Batxiler-edo teknikari-titulua. Gidatzeko B baimena	
Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia Zerbitzua																
14	Agentzia Zerbitzuaren Arduraduna	1	E	L	23	1.600,88	20		Agen	A1	AB	ZB	4	2012.12.31	Goi mailako unibertsitate-titulazioa	
15	Turismo teknikaria	3	E	L	19	1,438,58			Agen	A2	AB	ZB	4	2009.01.21 2008.01.01 (1)	Gradu-titulua, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoa edo baliokidea B gida baimena (2)	
16	Enplegu eta Garapen Agentea	1	E	L	18	1,430,22			Agen	A2	AB	ZB	4	2008.01.01	Gradu-titulua, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoa edo baliokidea	
17	Administraria	1	E	L	17	623,77		%50	Agen	C1	AO	AD	3	2012.01.01	Batxiler-edo teknikari-titulua.	
18	Enplegu eta Sustapen Teknikaria	1	E	L	18	1,045,02			Agen	A2	AB	ZB	4	2022/05/23	Gradu-titulua, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoa edo baliokidea	
19	Orientazioko eta Gizarteratze eta Laneratze teknikaria	2	E	L	18	1,114,81			Agen	A2	AB	ZB	4	2022/05/23	Gradu-titulua, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoa edo baliokide	
20	Enpresa teknikaria	1	E	L	18	1,045,02			Agen	A2	AB	ZB	4	2022/05/23	Gradu-titulua, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoa edo baliokide	
(1) 2 dotaziok: derrigortasun data 2008.01.01. Batek 2009.01.21.																
(2) 2 dotaziok: Ingeleseko «first» titulua edo baliokidea, edota frantseseko «delf B2» titulua edo baliokidea																

B) LANEKO PERTSONAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

Orden zk.	Deitura	Langile kopuru	Lanpostu mota	Lanbide kategoria	Ordainsari osagarriak			E.D.O.	Dedikazioa	Saila	Postua betetzeko baldintzak			Oharrak
					L.M.O.	B.O. (hilekoa)					Hizkuntz eskakizuna		Eskaturiko titulazioa	
						T.O.B.O.	D.B.T.B.O				Koef.	Derri-data		
Ingurumen Zerbitzua														
20	Mekanikaria	1	E	9	16	1,799,42		% 10		Ing.	1	---	LH2 Automozioa, Gidatzeko C karneta y	
21	Garbiguneko zaindaria	4	E	9	13	1.365,10 1.497,70		---		Ing.	2	1991.02.15 2005.01.01	EG, LH1 y	
22	Txoferra	1	E	9	13	1,369,77		---		Ing.	1	1991.02.15	EZ, y. Gidatzeko C karneta. CAP.	
23	Txoferra-zamaketaria	10	E	9	13	1,369,77		---		Ing.	1 1	2004.05.26 2018.01.23 2021.12.01	EZ y. Gidatzeko C karneta. CAP.	(1) (2)
24	Zamaketaria	1	E	9	10	1,288,32		---		Ing.			EZ	
25	Txofer-langileburua	1	E	3	17	1,389,08		---		Ing.	3	2022.12.31	LH-2, GB, y, gidatzeko C karneta. CAP	
(1) 7 dotziok: derrigortasun data 2018.01.23. Batek 2004.05.26. Beste batek 2021.12.01 eta beste batek ez du derrigortasun datarik. (2) 4 dotziok CAP eta gidatzeko C karnetaz gain, atoiatarako hauetakoren baimenen bat: B+E edo C+E edo C1+E edo D+E edo D1+E														

LABURDURAK

Lanpostu mota

B = berezia

E = Ez berezia

Hornitzeko era

L = Leihaketa

Ordainsari Osagarriak

L-M.O.= Lanpostu-mailako osagarria

B.O.= Berariazko osagarria

E.D.O.: Erabateko dedikazioaren osagarria

T.O.B.O.: Tarte orokorreko berariazko osagarria

D.B.T.B.O.: Dedikazio bereziko tarteko berariazko osagarria

B.Z.: Baloratzeko zain

Dedikazio berezia

% 20 = Erabateko baliagarritasuneko lanaldi luzatua

% 15 = Erabateko baliagarritasuna

% 10 = Erabateko baliagarritasuna

Saila

Z.O. = Zerbitzu Orokorra

ING. = Ingurugiroa

AGEN= Agentzia

Azpieskala

IK =Idazkaritza-Kontuhartzaitletza

LAG = Laguntzailea

AD = Administratiboa

T = Teknikoa

ZB = Zerbitzu Bereziak

Titulazioa

G.B. = Goi-mailako batxilergoa

L.H. = Lanbide Heziketa

E.Z. = Eskola Ziurtagiria

E.G. = Eskola Graduatua

y = edo baliokidea

C.A.P.= Lanbide Gaitasunaren Ziurtagiria

Eskala

G.N. = Gaikuntza Nazionala

A.O. = Administrazio Orokorra

A.B. = Administrazio Berezia